AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3255

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian, karrerako funtzionarioak izendatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008ko urteko enplegu publikoaren eskaintza onartzeko den irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren ondoriozko hautatze-prozesuan.

Irailaren 23eko 161/2008 Dekretuak onartu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-eskaintza publikoa, eta han jasotzen dira, besteak beste, dagokien hautaketa-prozesuen bidez esleitu beharreko estatu osorako gaikuntza duten toki- administrazioko funtzionarioen plazak, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoan estatu osorako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko zituzten oinarri orokorrak onartu zituen. Eta Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren 2012ko otsailaren 1eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoan estatu osorako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian, sartzeko hautaketa-prozesua deitu eta oinarri espezifikoak onartu egin zituen.

Oinarri orokorren 10. paragrafoak xedatzen du hautaketa-prozesu osoa gainditu duten pertsonak hautatutakoak izango direla Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpenaren bidez. Era berean, ebazpen horren bidez erantzungo zaie karrerako funtzionario gisa hautaketa-prozesua gainditu dutenei.

Proposamena egiten duen aipatutako Ebazpena argitaratu da eta agindu honetako eranskinean jasotako pertsona hautatu guztiek eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute. Hortaz, bidezko da pertsona horiek karrerako funtzionario izendatzea estatu osorako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian, oinarri orokorren 12. paragrafoak ezartzen duen arabera.

Izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Izendatuen zerrenda argitaratu eta biharamunean, izendatutakoen inskribatzeari ekingo zaio dagokion erregistroan, erregistro honen eratorriko ondorio guztietarako.

Azaldutakoagatik, idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian, sartzea agintzen duten oinarri orokorretan eta espezifikoetan ezarritakoarekin bat etorriz,hau

EBAZTEN DUT:

Irailaren 23ko 161/2008 Dekretuaren ondoriozko hautaketa-prozesuan hautatutako langileak –agindu honetako eranskinean zehaztuak– karrerako funtzionario izendatzea gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza azpieskalan, sarrerako kategorian.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 15a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN DIREN IZANGAIEN ZERRENDA
IDAZKARITZA AZPIESKALA, SARRERAKO KATEGORIA

Barne promozioa

NAN	Izen-abizenak
72490342	Rekondo Perez, Unai

Txanda irekia

NAN	Izen-abizenak
78908072	Arana Aguirre, Laura
29033460	García Sanchez, Aranzazu
47379189	Gómez Ruiz, Marta María
72581700	Gorrotxategi Zubizarreta, Amaia
53374067	Muñoz Gómez, Rafael
33536341	Pena Dorado, Antía